

Goierri tarra

285. zenbakia

2005eko uztailak 15

ZEZENAREN AURREAN KORRIKA



Eva Argiñano



Zure argazki digitalekin
OPORRETA KOADERNOA
eskaezazu!



www.fotoetxe.com



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


*I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Alaitz Sarasola

Ordiziako festak

Uztailaren hondarrak
saltsarako gertu,
San Ferminen ondoren
nolatan aspertu,
katxiak gainez egin,
suziria lehertu...
festarako giroak
ezin du atertu.

Santaneroen dantza
eta adoreak,
txoznetako basoen
festa zaporeak,
Beti Argi bandaren
doinu dotoreak...
zipritzindu gaitzala
euren umoreak.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN



Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424
647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Aitor Aranburu

5. Ingurugiro txokoa: Oiangu

7. Errezeta: Kalabazinak
mariskoarekin beteta
Aholkua: Umeek jokuetan galtzea
onartzen ez dutenean

8. Kate motzean: Iñaki Arin

9. Elkarrizketa: Eva Argiñano

12. Elkarrizketa: Goierritarrak San
Ferminetako entzierroan

16. Erreportajea: Beasain eta
Ordiziako futbolari beterranoak

22. Non zer?

24. Debaldeko iragarkiak

30. Argazki zaharra



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aitor Aranburu

Ordiziako azoka

Tokian tokikoa, garaian garaikoa

Iritsi da udara. Denon gustoko urtaroa izan arren, ez dizkiogu udarari gauza berdinak eskatzen. Telebistan beroari "eguraldi ona" deitzen dioten bitartean, baserritarrok kezkatuta gaude uztaila izanik Goierrialdea erabat lehorturik ikusten dugulako. Badirudi iturrian ura falta arte ez dagoela hemen lehorterik. Dena den, orain hasten da hemengo baratzeek izaten duten urtarorik aberatsena, eta non bertako produktuak erosteko aukera hobea Ordiziako azokan baino. Honetan ere ez gara ados jarriko ordea, batzuk nahia go izango baitute Urbil, Garbera, Morea edo antzeko kontsumismoaren tenpluetara joan, erosketak egin eta eguna pasatzera.

Ordiziako feria XI-XII. mendean jaio zen San Bartolome ermitaren inguruan. 1268. urtean, Ordizia hiribildu bezala eratu eta Gasteizko forua jaso zuenean araututa geratu zen merkataritza-bilgune hura. 1512an Ordiziako herrian gertatutako sutearen ondoren, Zumaiako Batzarrak laguntza eman zuen herria berreraikitzeke, eta Juana Erreginak "urtean zehar asteazkeneko feri zabala egiteko baimena" eman zion herriari. XVIII. mendean erabat sendotu zen feria, eta 1870. urtean trena iritsi izanak ere bultzada haundia eman zion. 2002ko maiatzaz geroztik, asteazkenaz gain ostiral arratsaldetan ere hasi zen azoka egiten kontsumo ohitura berrietara egokitu nahiean. Hala ere, eta azoka berezietan jende gehiago ibiltzen baldin bada ere, kezka eta penaz ikusten dugu Gipuzkoako asteroko azoketan geroz eta gutxiago saltzen dela. Jende gazteari kosta egiten zaio hurbiltzea. Mendeetan iraun duten ekoizpen, merkaturatze eta kontsumo ereduak galtzeaz ote gaude?

Ekoizpen ereduaren, baserri eredu batek agroindustriaruntz goaz, merkaturatzean azoka eta denda txikietatik saltoki-gune handietara, eta gizakia bizitzeko kontsumitetik kontsumitzeko bizitzera igaro

da. Gipuzkoako hainbat azoka pribatizatu dituzte dagoeneko, eta Azkoitiko azoka pribatizatuko dutenaren zurrumurruak ere hasi dira. Jende gehienak gainera, joera normalizat hartzen du hau, zer galtzen ari garen erreparatu gabe. Oraingoan ere, galdu eta gero hasiko gara zer geneukan konturatzen.

Saltoki gune handiak defendatzen dituztenek, lanpostu sorrera, inbertsioak, kontsumitzaileentzat aukera anitza eta prezio eskuragarriagoak etab. arrazoitzen dituzte. Errealitatean ordea, Europako ikerketen arabera, saltoki-gune handiak ezartzen diren eskualdeetan sortzen duten lan finkoaren ia bikoitza suntsitzen dute, behin behineko enplegua zabaltzen laguntzeaz gain (soldata urriagoak, aldi baterako lana...). Bost aldiz diru gehiago gastatu behar da lanpostu bat sortzeko. Aukera gehiago izateari dagokionez, saltokiak elkartzeko joeraren ondorioz, banatzaileek hartu dute boterea hornitzaileen aldean, eta produktu estandar berdinak aurkitzen dira marka ezberdinen azpian. Merkatua enpresa gutxi batzuen eskuetan biltzeak muriztu egiten du kontsumitzaileek produktu, saltoki eta abarren aukeraketan duten eragina. Saltoki handietako prezioen goranzko joera ere nabarmena da konpetentzia deusezten duten heinean.

Jaki eraldatuen, enpakekatuen eta beti eskura dauden hiri-eskariari begiratzeko dio elikagaien merkataritzak. Globalizazioari, garraioaren erraztasunari eta erregulartasunari ematen dio lehentasuna, osasunaren, elikaduraren, animalien ongizatearen, baliabideak erabiltzeko eragin-kortasunaren, aniztasunaren, eskualdeen berezitasunaren eta, baita zapoaren kaltetan ere. Pestizida, herbizida, hormona, antibiotiko, kontserbatzaile, kolorante, etabarrez jositako jakiak erosten ditugu saltoki handietan, azokan aurkitzen diren garaiko eta tokiko jaki freskoen ordez. Azokan dago benetako aukera, arrunta edo ekologikoa, baina aurpegia daukan janaria: ikus daiteke zer dagoen gauza bakoitzaren atzean. Konzientziak agintzen digu gastatutako diruarekin zer erosi nahi dugun. Beraz, bizi eta kultura aniztasuna bultzatzeko modua da Ordiziako azokan erostea: "babestu tokikoa, mundu guztian". Udarako barazki aniztasunaz gozatzeko modu paregabea.

*Azokan dago benetako aukera,
arrunta edo ekologikoa,
baina aurpegia daukan janaria*

Oianguren, gure Oiangu

Ordiziako Udalak Oiangu Naturagunearen inguruan behin behineko onartutako Oianguen Aisigunea (golf, igerilekua, paintball...) proiektuaren aurrean, Landarlan Ingurumen Elkarteak adierazten du:

Oianguren Aisigunearen proiektua Garapen Jasangarriaren eta Tokiko Agenda 21 konpromisoen aurkakoa dela, besteren artean, ondorengo arrazoi hauengatik:

- Erabaki hori herritarren partaidetzarik gabe hartua izan da.
- Interes publikoaren aurkakoa da, Oianguko hainbat gune pribatizatuak baitira, golfa, igerilekua eta paint-ballerako. Berriz, uste dugu gure herriak gero eta urbanizatuagoak diren garai honetan, beharrezkoa izango zaiola jendeari Oiangu bezalako espazio publiko berdeak izatea, naturan libreki eta lasai gozatzeko.
- Oiangu dibertsitate biologiko handiko naturagunea da eta bertan ekosistema desberdinak aurki daitezke: berezko hariztien ordezkapena, baso mistoa (lizarrak, astigarrrak, zumarrak, pagoak, gorostia, hurritza, elorri zuria, oilakarena), birpopulatutako mendia, zelaiak eta laborantza atlantikoa, landazabala, ur-putzua, eta eremu horiei dagokien fauna.
- Oianguko paisai balioak murriztuko dira, golf zelaietako sareak direla eta.
- Paint-balla (gerrako jolas) Garapen Jasangarriaren balioen kontrako jarrerak goraipatuko ditu: biolentzia eta gerra, nahiz eta "jolasa" besterik ez izan. Horrez gain, Oianguko basoan inpaktuak sortuko ditu, bertako fauna uxatzearen ondorioz.
- Golf zelaiak biodibertsitatearen aurkako sistema artifizialak besterik ez dira. Mantenuan ur kontsumo handia, energi kontsumo handia eta argi kutsadura sortuko dira, udazken eta neguko ordu ilunetan golfean aritzeko argi fokoak erabiliko baitira. Horrez gain, pestizida, zein ongari ki-



mikoen erabilpenak, nola belarra beti motza mantentzeak eraginak sortuko ditu zelaietako faunan.

- Golf zelaiaren bigarren faseak Oiangu-Txiki baserriko nekazal lurren erabilpena betiko galtzea ekarriko du. Hori galera ekonomiko zein soziala izango da, bertako elikagaiak lortzeko lurrak gero eta gutxiago ditugun Euskadi honetan.

Berriz, uste dugu Oiangu Parkea babestu beharrek eremua dela, bere natura eta historia balioengatik. Horregatik, kontserbazio, zein aisialdia, hezkuntza eta turismoa batera garatuko dituen proiektua martxan jartzea beharrezkotzat jotzen dugu, Institutioak (Udala, Goieki, Aldundia, Eusko Jaurlaritza) eta herritarren artean. Egitasmo horretan Landarlan Ingurumen Elkartea parte hartzeko prest azaltzen da.

Amaitzeko Oianguko erabiltzaileei, gogoratu nahi diegu, guztion ardura dela Oiangu zaintzea, Udalarena eta bertan egon edo bertatik pasatzen diren guztiena.

Landarlan Elkartea

JAKIN BEHARREKOAK

'Interes ludiko-naturalistikoak duten Gipuzkoako guneen gida' Euskal Geografi Elkargoak 'Andrés de Urdaneta', Javier Gómez Piñero, Juan Antonio Sáez eta beste, 2000. Gida honetan Gipuzkoako 52 gune ikuspegi naturalistikoak deskribatzen dira eta informazio osagarriak ere eskaintzen dira, nola iritsi, tabernak, ibilbideak. Horien artean Ordiziako Oiangu deskribatzen da. www.ingeba.org/liburua/ludicos/indludi.htm

Oiangu publiko eta bizirik Plataforma: Antolakuntza zein lege aholkularitzako gastuei aurre egiteko, kontu korronteak zabaldu dira: 2101 0073 10 0011594967 eta 3035 0054 0540057508. Informazio gehiagorako: oianguplataforma@yahoo.es

Biodiesel puruko lehenengo gasolindegia Iruñean. Iruñeko Cordobillan aurkitzen da eta bertan edozein motor dieselak erabil dezakeen biodiesela saltzen da. Biodiesel hau erabilitakoa ez den olioekin sortzen da (ekilore, koltza, soja eta palma). CO2ren emisioak %90ean gutxitzen dira eta motorra gutxiago gastatzen da.

Estatu Batuetako alkatek Kiotoko Itunaren alde. AEBtako 130 alkate, beraien hirietan negutegi efektua eragiten duten gasak murrizteko mobilizatu dira. 29 miloi hiritar baino gehiago ordezkatzeko dituzte eta Kiotoko Itunaren konpromezuak bete eta baita hobetzera konprometitu dira.

Oianguren Aisigunearen proiektua

Garapen Jasangarria eta Tokiko

Agenda 21eko konpromezuen

aurkakoa da




Landarlan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Energia (II)

Zer egin dezaket kontsumitzen dugun energia murrizteko?



Aurreko atalean aipatu bezala, energia oinarriko faktorea da herriko biztanleen bizi-kalitatea eta ongizatea bermatzeko. Hala ere, energia-baliabideak urriak dira eta horien kontsumoak ingurumenean eragin kaltegarriak sorarazten ditu.

Beraz, oso garrantzitsua da energia arazoiz erabiltzea eta neurririk gabe ez xahutzea, alegia, erabilitako energia ahalik eta gehien aprobetxatu behar da.

Ba al dakizu?

- Mundu mailako energia kontsumoaren %18 eraikitatik sortzen da, etxebizitzek %12 kontsumituz. Gastu izugarri hauek, maila handi batean, eraikinak ikuspegi bioklimatikotik egoki ez direlako gertatzen dira (kokapena, orientazioa, ingurunearen tratamendua, etab.).
- Familia arrunt batek kontsumitzen duen energia elektrikoa produzitzeko, urtean 1.900 CO₂ igortzen dira.
- E.A.E-an erabiltzen dugun energiaren %3,3 bakarrik datorkigu energia berriztagarrietatik. Kopuru hau Europan %6 den batazbestekotik oso urrun dago. Gainera, esan beharra dago, Europako ekintza-programak %10ean kokatu duela batazbesteko hori, jarduera estrategikoko ekimen bezala. Zergatik? E.A.E-ak petrolioarekiko menpekotasun handiegia duelako, eta epe ertain eta luzera petrolioaren prezio-

ak gora egingo duelako; horrek ekonomian ondorio oso kaltegarriak ekarriko lituzke.

- Energia gehiegi kontsumituz, gehiago ordaintzen da eta ingurumena gehiago poluitzen da.

Zer egin dezaket nik?

- Etxe bateko tenperatura egokia 19-20 gradu bitartekoa da; 23-24 gradutik gora, erregaia eta dirua xahutzen ariko zara seguraski.
- Ahal baduzu, lanpara fluoreszenteak erabili argi asko luzaroan behar den lekuetan; ohiko bonbilet baino bost bider potentzia txikiagoa dute, eta zortzi bider luzeago irauten dute. Ez jarri ordea bonbila fluoreszente-rik argia maiz piztu eta itzali behar duzun lekuetan, izan ere, bonbila horien bizi-zikloa murriztu egiten da eta elektrizitate gehiago kontsumitzen da.
- Kendu etxean denbora gehien piztuta izaten dituzun bonbilak eta jarri kontsumo bajuko beste batzuk, dirua aurreztuko duzu eta gutxiago poluitu (garestiagoak badira ere, gehiago irauten dute eta energia-kontsumoa %80 txikiagoa izan daiteke). Ez da komeni horrelakorik jartzea argia maiz pizten eta itzaltzen den lekuetan, argia piztean kontsumitzen baitute energia gehien.
- Telebista, musika-aparatu eta ordenagailuek, nahiz eta itzalita egon, argi gorri bat eduki ohi dute piztuta askotan: "Stand-by" funtzioa deitzen zaio horri. Funtzio horrekin ere energia kontsumitzen da, eta ezkutuko kontsumoa edo kontsumo fantasma deitu ohi zaio. Beraz, aparatuak itzaltzeko, etengailua erabili.
- Etxetresna elektrikoak erosten dituzunean, galdetu zein modelok kontsumitzen duten energia gutxi. Etxetresna elektrikoaren etiketek energia-eraginkortasuna adierazten dute. Horretarako, kontsumo maila bakoitziari letra bat dagokio: kontsumo baxuari A, B, C; kontsumo ertainari D eta E; eta kontsumo altuari Feta G.
- Ontzi-garbigailuak eta garbigailuak beteta daudenean erabiltzen saiatu, bestela, programa laburrak edo ekonomikoak hautatu. Eta ahal izanez gero, ur hotzarekin edo behe tenperaturaren garbitu.
- Plantxatu arropa-pila handiak behingoan, plantxa berotzeko kontsumitzen baita energia gehien.
- Hozkailua noizean behin deskonjelatu. Izotz gehiegi badu ez du behar bezala lan egingo, eta horretaz gain, kontsumoak gora egingo du (%30). Ez sartu janari berorik hozkailuan.
- Termostato bidezko tenperatura erregulatuak erabili dutxan, gure etxebizitzako kontsumo energetikoaren %6 aurrez baitezakete.
- Aireztatu etxea goizean

goiz, tenperatura freskagoa baita. Neguan, nahikoa da logela 10 minutuz aireztatzea.

- Itzali bitrozeramika elikagaiak prestatzen amaitu baino lehen, energia aurreztuko duzu eta ez duzu hainbeste kaltetuko ozono geruza.
- Elektrizitatea erabili pilen ordez, izan ere, pilak ekoizteko energia asko behar da, hain zuzen, gero ematen dutena baino 50 bider gehiago. Jostailu, bideo-kamera etab. tarako berriro kargatzen diren pilak erabili.
- Berokuntza-sistema, sukaldea edo berogailua aldatzekotan bazabiltza, gogoan izan gas naturala dela aukerarik merkeena.
- Erabili gehiago garraio publikoa. Auto pribatuak, kontsumitzen dugun energia kopuru totalaren %15 suposatzen du.

Zer egin dezakegu udalerrian?

- Energia berriztagarriak aprobetxatzeko udal ordenantza bat landu.
- Landa-turismoko jardueretan energia berriztagarriak ustiatzeko finantziario eta laguntza-iturriak lortzeko bidea dinamizatu.
- Herriko argiztapena erregulatu, energia kontsumoa eta argi kutsadura murrizteko.
- Eraikuntza ordenantzetan energia eraginkortasunaren eta arkitektura bioklimatikoaren irizpideak gehitu.

SUKALDEAN



Iban Mate
Dolarea jatetxea
Beasain

Osagaiak:

- Kalabazinak
- Ganbak
- Gazta
- Irina
- Gurina
- Esnea

Kalabazinak mariskoarekin beteta

Lehenik eta behin, kalabazinak hartu eta erditik moztu behar dira. Barrukoa hustu, frijitu eta gorde egin behar dira.

Beste alde batetik, kalabazinaren haragia txikitu eta ganba eta gurinarekin batera gorritu. Irinarekin suestitu eta esnearekin tapatu ganba eta kalabazinaren bexamela lortu harte.

Hau guztia hozten dene-

an, kalabazinak bete behar dira eta gaztarekin tapatuko ditugu.

Behin gazta jarri ondoren, dena labean sartuko dugu berotzeko eta gainera egiteko.

Plater hau era ezberdinetan zerbitzatu daiteke. Batetik, marisko krema batekin; bestetik, tomate saltsa batekin eta azkenik, barazki krema batekin.

Umeek jokuetan galtzea onartzen ez dutenean

4 eta 6 urte artean dituztenean hasten dira haurrak taldean eta araukin jolasten. Honela hasten dira konpetizio jokuetan: denek irabazi nahi dute eta galduz gero asko haserretzen dira. Galtzen duenen zuen seme-alabak hain gaizki ez pasatzeko zenbait gauza kontuan hartu behar dira:

- Adibide ona eman behar diozue. Zuek galtzaile txarrak baldin bazarete, bera ere halakoa izatea logikoa da.
- Galtzeagatik haserretzen bada, ez errietarik egin. Irabazteko zer egin behar

duen azaldu behar zaio, besterik ez.

- Arauak jartzen ditugunean, haurrak ulertu dituela segurtatu. Batzuetan haurrak ez daki ongi zer egin behar duen irabazteko edo ez galtzeko eta urdu-ri jartzen da.
- Oroitarazi ezin duela tranparik egin irabazteko.
- Irabazi edo galdu, elkarrekin jolasten pasatu duzuen tarte oso polita izan dela esan behin eta berriz.
- Galtzea ez dela txarra ikusarazi: horrek hurrengoan hobetzera motibatzen du, orain sufritzen duen frustrazio tikiak eta aurrera begira aurkituko dituen zailtasunak onartzen joateko prestatzen du.

● Zure seme-alabei gogorazi bere buruarekin ongi sentitzeko ez dela gauza guztietan onena izan behar eta galtzea ez dela porrota, hobetzeko aukera baizik. Galtzeko aukerarik ematen ez dion jarraera perfektionistatik ez da mantendu behar. Hori zuzendu behar den jarraera okerreana eta kaltegarria da.

AHOLKUA




Raquel Amigo
Psikologoa
Goiklinik osasun zentroa

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak


Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



“ Behin erakustazoka bateko artelan batzuk aseguratzea eskatu zitzaigun ”

Segurua zertarako?

Pertsonen edo ondasunen gain ezbehar baten aurrean behar den erantzuna izan dezagun. Zenbait zerbitzu ematen dira, diru kopuru bat, gaixotasuna edo bizitza bezalako arazo pertsonalak aseguratzen dira. Ondasunen konponketa ere aseguratzen da (etxea, autoa...).

Zein da gehien egiten den aseguru mota?

Autoarena, derrigorrezkoa baita.

Zer da aseguratu duzun gauzarik bitxia?

Behin erakustazoka bateko artelan batzuk aseguratzea eskatu zitzaigun. Normalean etxe aseguru etxe berezituak daude horretarako.

Zer ez zenuke inoiz aseguratu?

Nire printzipioek onartzen ez dituzten aktibitateak.

Asegurua kontratatzeke zer hartu behar da kontutan?

Pertsonala baldin bada: edadea, lanbidea eta zer mota edo zerbitzu nahi dituen. Ondasunetan, berriz: non dagoen, ze neurri dauzkan (ateak, alarma...). Baloreetan: zer nahi duen aseguratu.

Geroz eta aseguru gehiago egiten al dira? Zergatik?

Bai. Orokorrean beharra ikusten delako bai eguneroko bizitzan, baita luzarora ere.

Orain oporrak datoz. Bidaiaiko segurua beharrezkoa al da?

Beharrezkoa baino gehiago egokia da. Geroz eta urrutirago joan beharrezkoagoa da.

Zerk sortzen dizu barrea?

Lagun artean sortzen den giroak.

Eta negarra?

Bizitza honetan dagoen injustiziak.

Zaletasun bat:

Mendian lasai ibiltzea (Euskal Herriko mendietan).

Gustuko jaki bat:

Arraina (txitxarroa).

Edari bat:

Sagardoa.

Ataun:

Jaioterria eta bizitzako lehen herria.

Goierriko txoko bat:

Ataun.

Oporretarako leku bat:

Edozein, gustura eta lasai egonez gero.

Amets bat:

Euskaldunok geure erabakiak hartzeko jabe izatea.



kutxa

gizarte ekintza

Eva Argiñanorekin sukaldean




Nahiz eta beti familiaren itzalean egon den, Eva Argiñanok badu esperientzia sukaldean eta hori erakusten du egunero lanean. Gozointzan dauka fama eta egunero egi-

ten ditu postreak jatetxerako. Nahiko lotsatia da eta nahiago izaten du jende aurrean ez agertu. Baina, oso alai aritu da gurekin berriketan sukaldaritzari buruz.



OVER Taldea

BIDAIAKKale Nagusia 42, behea **BEASAIN**

Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Noiz eta nola hasi zinen sukaldaritzan?

Oso gazte hasi nintzen, 15 urte nituela. Ikasle txarra izan naiz eta gainditu gabe-ko gai asko izaten nituen. Ondorioz, udan lanera bidaltzen ninduten anaiarekin golf zelaiko jatetxera ontziak garbitzera eta beste lan batzuk egitera. Pixkanaka sukaldean sartzen hasi nintzen, lehenengo ogitar-koak egiten, gero entsaladak...

Non ikasi zenuen?

Lanean ikasi nuen sukaldaritzan. Hala ere, etxean ere aritzen nintzen sukaldean. Hasieran nire anai-arrebek egiten zuten baina gazteak zirela joan ziren etxetik eta gero ni aritzen nintzen. Beti sukaldeko gauzeekin harremanetan egon naiz.

Gozogintzara espezializatu al zinen edo fama hori hartu duzu?

Ez, ni ez naiz gozogintzara espezializatu. Karlosek, nire anaiak, jatetxe hau ireki zuenean, barran lanean hasi nintzen pixka bat. Baina, niri jende aurrean egotea asko kostatzen zitzaidan lotsatia naizelako eta zalantza asko nituenez, ez nintzen oso gustura egoten. Beraz, sukaldera sartu nintzen gauza sinpleak egitera. Kasualitatez, momentu hartan, gozogilea ikastaro batzuk egitera joan zen eta ni jarri ninduten gozoak egiten. Baina nik ez nekien ezta arroz esnea egiten ere.

Eta nola moldatu zinen?

Gozogileak errezetak utzi zizkidan baina errezeta horiek ez zeuden ongi, eta une txarrak pasa nituen. Hala ere, Mikelek eta Patxik laguntzen zidaten eta oso ongi eramaten ginen elkarrekin. Baina, zenbaitetan jatetxea irekitzeko ordua iritsi eta postreak bukatu gabe edukitzen genituen. Hasiera xelebrea izan zen.

Karlosen itzalpean egon zara. Horrek zein onura eta kalte ekarri dizkizu?

Kalterik ez dit ekarri, dena



“Telebistak lotsa galtzen irakutsi dit”

Telebistan lan egiten duzu. Nola moldatzen zara kameren aurrean, zaila egiten al zaizu?

Hasieran oso zaila egin zitzaidan. Ez daukat ni nolakoa naizen erakusteko beldurrik baina oso lotsatia naiz eta oso zaila egiten zitzaidan. Ondorioz, telebistak lotsa hori galtzen irakutsi dit. Orain nahiko lasai nago, Karlosen ondoan lasai-lasai egoten naiz. Kontu kontari egoten gara eta lasaitu egiten naiz.

Zer dauka ona telebistan sukaldaritzaz egiteak?

Niretzako gauza asko daude onak. Gu txikiak ginenean, otorduak etxean egiten ziren baina, gaur egun, hori asko aldatu

da, batez ere hiriburu handietan. Hori dela eta, telebistan sukaldean aritzeak jana-riak prestatzen ez ahazten laguntzen du. Orain jendea ez da egoten sukaldean sartuta lehen bezala eta gauzak ahaztu egiten dira. Gainera, haurrek ere ikusten dute eta sukaldean aritzeko ohitura hartze-ko animatzen du eta horretan lan handia egin du Karlosek.

Gauza ezberdinak egiten dira eta produktu berriak ere erabiltzen dira. Ideia asko ematen dira pixkanaka eta bakoitzak nahi duena hartzen du. Hala ere, gu sukaldariak gara, ez medikuak eta jende-ari ideiak ematen dizkiogu garbitasunari buruz, produktuei buruz, etab.

ona izan da. Itzalpean ego-
tea oso ona izan da niretzat,
izan ere, ez zait asko gusta-
tzen aurpegia ematea. Bea-
sainen beti Jesus taxi gida-
riaren alaba izan naiz, eta
hemen Karlosen arreba. Eta
niretzat oso komodoa da,
praktika naiz. Inoiz aurpe-
gia eman behar baldin bada
Karlosek jartzen du eta ni
atzean lasai-lasai egoten
naiz.

Zer da gozoetatik gehien gustatzen zaizuna?

Ni ez naiz oso gozozalea
baina denetik gustatzen

zait. Adibidez, arroz esnea
asko gustatzen zait baina ez
bazkaldu eta gero jateko,
merienda bezala jateko bai-
zik. Era berean, gauza mi-
katzak eta fruitu gustua du-
tenak asko atsegin ditut.

Gauza sinpleak gusta-
tzen zaizkit eta etxean egin-
dakoak. Orain oso zaila da
etxeko opilekin gosaltzea,
ahaztuta gaude egiten, utzi-
ta. Eta gozotegietan ere zai-
la da horrelakoak lortzea,
hautsa eta horrelako pro-
duktuak erabiltzera ohituta
baitaude. Orduan, nik esa-

ten dut, nire postreak itxura
oso ona ez dutela izaten
baina dena produktu ona
edukitzen dutela eta gustu
ona izaten dutela.

Postreak egiteko osagai-rik garrantzitsuena?

Freskura. Mantekila ona oso
garrantzitsua da eta esnea
ere ona, naturala bere bita-
mina eta koipearekin. Irina
ere gero eta naturalagoa
izatea hobea da, nahiz eta
sukalderako lan gehiago
ematen duen. Gauza horiek
dira garrantzitsuenak.

Baina horretaz gain, be-

rebiziko garrantzia dauka postreak egunero egiteak. Hona praktikak egitera etortzen direnei beti esaten diegu egunero egunerokoa egiteko. Aurreko egunean ez dira gauzak aurreratu behar, momentuan egin behar da dena.

Ogia ere egiten duzu. Non ikasi zenuen ogia egiten?

Etxean lehen egunero egiten nuen ogia. Jatetxean sartu nintzenean, Joseba Lamariano okinak erakutsi zidan ogiak nola egin eta hogei urte pasa ditut jatetxerako ogia egiten. Baina, orain Josebak bere aitaren okindegia hartu du eta berak ekartzen dit ogia eta nik la-bean sartzen dut.

Zein ogi mota egiten dituzu?

Ogi mota asko egin ditugu. Lehenago okindegiak ogi barra bat egiten hasi ziren eta denek berdina jaten genuen. Orduan, ni ogi zuria, integrala, sesamozkoa, in-txaurrena eta kalabazarena egiten hasi nintzen, besteak beste. Une horretan, jendeari gauza berria iruditzen zitzaion eta asko gustatzen zitzaion.



Orain ordea, leku askotan hasi dira mota honetakoak egiten eta ogi "kase-roa" ez dute egiten. Beraz, guk alkatxofa deitzen diogun ogia egiten dugu orain, antzinako ogiaren antzekoa, mami askorekin.

Ogi karta bat sortu al zenuen?

Ez. Bertan egiten genituen ogi mota guztiak otar batean jartzen genituen eta jen-

deari erakusten genizkion. Gero bakoitzak, nahi zuen ogiarekin bazkaltzen zuen.

Zer iruditzen zaizkizu Beasaingo odolkiak?

Zoragarriak. Oso odolki zalea naiz ni eta nire semeak ere bai. Udan ez, baina neguan astero bi odolki eramaten ditut etxera.

Eta Idiazabalgo gazta?

Hau ere oso ona da, hemen beti edukitzen dugu.

Postreterako erabiltzen al duzu?

Ibili dut baina orain ez dut erabiltzen. Izan ere, gozoarekin nahasteko fuertea da.

Bertako produktuen aldekoa zara. Zergatik?

Alde batetik onak direlako eta bestetik hemengoak direlako. Nire ustez, norberak bertako produktua erabili eta gastatu behar du, baita saldu ere.

Motzean

Lehenengo plater bat:

Entsalada.

Bigarren plater bat:

Arraina.

Postre bat:

Kopa Eva.

Edari bat:

Txakolina eta Errioxako ardo beltza.

Sukaldari on baten ezaugarriak:

Goxotasuna.

Maitea konkistatzeko postre bat:

Kanela, bainila eta gogoa.

Aurreko egunean ez dira gauzak aurreratu behar, egunean egunerokoa egin behar da


IDIAZABALGO GUARDI INDUSTRIAGUNEA



**SALGAI, ERRENTAN
eta ERRENTAN
EROSTEKO
AUKERAREKIN**

Industri pabiloiak 250 m²-tik

629 446 510



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
802 ZAL. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
943 88 46 28

Goierritarrak Iruñeko entzierroan



Urteak dira bi goierritar Iruñeko San Ferminetako entzierroetan korrika ateratzen direla. Lazkaoko Aitor Tello da bat eta Segurako Oier Besarategi bestea. Ausardia eta korrikan trebezia erakusten dute urtero zezenaren aurrean korrika irteten direnean. San Ferminen bezperan kontatu ziguten beraien esperientzia.



**Jauregi
TOLDOAK**



INSTALATZAILE OFIZIALA



laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Noiz eta nolatan hasi zineten entzierroetan korrika egiten?

Oier Besarategi: Gurasoen kulpa izan da nire kasuan. Izan ere, txiki-txikitatik San Ferminak iristen zirenean telebista aurrean jarri eta entzierroak ikusten jartzen gintuzten eta zaletasuna piztu zitzaidan. 1997an aterantz nintzen lehenengo aldiz entzierroan, beraz, jada zortzi urte dira korrika hasi nintzenetik.

Aitor Tello: Nik bost urte daramatzat entzierroetan korrikan. Eta niri zaletasuna Zegamako festetan sortu zitzaidan. Halaber, lehen bigantxak askatzen zituzten eta orduan konturatu nintzen ez zidatela beldur handirik ematen. Beraz, zezenaren aurrean probatzea erabaki nuen.

Eta nola gogoratzen duzue lehenengo entzierroa?

A. T: Nik izugarri gaizki gogoratzen dut aurrenekoa. Korrika egin nuen baina zezenik ez nuen ikusi. Izan ere, bakarrik joan nintzen, ideia handirik gabe eta jendea sartzen ikusi nuen lekuan jarri nintzen. Barrerak zabaltzen joan ziren eta konturatzerako zezen plaza barruan nengoen eta ez nuen ezta txupinazorik ere entzun. Hurrengo urterako jakin nuen nola egin behar zen eta geroztik ondo joan da guztia.

O. B: Lehenengo korrikaldia larunbat batean egin nuen eta ni ere Aitor bezala ibili nintzen. Ez nuen zezenik ikusi eta gaizki gogoratzen dut lehenengoa.

Aurten biok irtengo zarete. Entrenatu al duzue?

A. T: Nik korrikan irteteko



“Etxekoak beldurtuta egoten dira”

“Nik amari esaten nion 18 urte betetzen nituenean irten egingo nintzela korrikan, baina joateko autorik ez neukan ezin izan nuen bete esana”, adierazi du Oier Berasategik. Horrela, bere lehenengo autoa lortu zuenean joan zen Iruñea aldera. Ama eta emaztea beti disgustura egoten direla aipatu du segurarrak eta beldurra pasatzen dutela ere bai.

Nahiz eta tentsio uneak bizi, amak eta emazteak telebistaz ikusten dute entzierroa eta gero deitu egiten die Berasategik ondo dagoela esateko: “Telefonoz deitzen diet ondo nagoela esateko eta etxera bidean abiatuko naizela adierazteko”.

Aitor Telloren familia ere disgustura egoten da. “San Ferminetan korrika egitera joan nintzen lehenengo urtean nire ama negarrez utzi nuen etxean, ez zuen gau ederra pasatu”, adierazi du Tellok. Gainera, bere ustez normala etxekoek horrelako gauza batera ez animatzera.

ez dut entrenatzen. Urte guztian zehar nahiko aktibitate egiten dut eta honetarako ez naiz bereziki prestatzen. Korrika egiteaz gain, erreflexu onak eduki behar dira entzierroan.

O. B: Horretarako bereziki ez dut ezer egiten. Lehen ere mendira bueltak eta korrika pixka bat egiten dut eta nahikoa da.

San Ferminetan zenbat egunetan ateratzen zarete?

O. B: Urtero ez da berdina izaten. Lan erreleboen arabera ateratzen naiz. Urte batzuetan lau aldiz irten naiz eta beste batean berriz behin. Asteburuan berriz

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA



LADA
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47

behin irten nintzen eta jende gehiegi egoten da korrika egiteko, arriskutsua izaten da.

A. T: Ni ere lanaren arabera irteten naiz. Batzuetan lau aldiz irten naiz eta beste batzuetan aldiz, gutxiago.

Arropa bereizgarririk eramaten al duzue? Beti kamiseta berdina, edo zapata berdinak...

A. T: Nik badaukat niki bat urte osoan janzten ez dudana eta urtero San Ferminetan korrika egiteko erabiltzen dudana. Ez dakit zergatik baina gogokoa dut. Eta ez da berezia, garai bateko Lazkaoko futboleko niki zahar bat baita.

O. B: Nik denetik ibili dut, baina, urtero ezberdina. Ez daukat ezer berezirik urtero janzten dudarik. Urte batean kamiseta gorri batekin irten nintzen eta egunkari ezberdinetako argazkietan ateratzen nintzen. Ordutik, ahalik eta zuriena janztea erabaki nuen.

Zer ordutan irteten zarete hemendik?

O. B: Hemendik seiak aldeira irteten naiz eta autoa aparkatzen dudanerako zazpiak inguru izaten dira. Entzierroa egiten den bide guztian zehar ibili zenbat jende dagoen ikusteko eta gero beroketa batzuk egin ez itxaroten dut.

Elkarrekin joango al zarete egunen batean?

A. T: Ea aurten elkarrekin joaten garen, izan ere, biok berdina egiten dugu baina auto ezberdinetan joanda.

Entzierroaren zein puntutan sartzen zarete? Zein kaletan?

O. B: Estafeta kalearen erdi aldetik abiatzen naiz eta handik Telefonica kalea iga-



ro eta zezen plazan sartzen naiz.

A. T: Ni ere puntu berdinean sartzen naiz. Orain dela urte batzuk, han nengoen entzierroa noiz hasiko itxaroten eta bat-batean Oier ikusi nuen. Horregatik diot berdina egiten dugula baina

auto ezberdinetan joanda. Ea aurten posible dugun elkarrekin joatea.

Beti bakarrik joaten al zarete?

A. T: Ni bai, beti bakarrik ateratzen naiz.

O. B: Ni ere normalean bai. Baina urteren batean koa-

drilako bat eta nire anaiak ere joan dira entzierroan korrika egitera.

Zer sentitzen duzue korrika zoaztenean?

O. B: Beldurra eta tentsio izugarria. Noiz hasiko den itxaroten ari zaren bitartean urduritasuna handia izaten da. Ileak tente jartzen zaizkit eta tripak nahastu ere bai. Baina, behin korrika hasitakoan ahaztu egiten da.

A. T: Urteak pasa ahala lasaitasun gehiago nabaritzen dut baina hala ere, hasi baino lehenagoko minutuak tentsio handikoak izaten dira denontzat.

O. B: Zezenaren aurrean ohituta dagoenak ere beldurra izaten du. Niri behin Francisco Rivera toreatzailea ondoan tokatu zitzaidan eta bera ere oso urduri zegoen. Noiz hasiko da eta horrelako galderak egiten zizkidan.

Inoiz sustorik izan al duzue?

O. B: Ni behin erori nintzen eta altxatzen hasi nintzenean beste bat etorri zitzaidan gainera. Baina bestela ez dut sustorik izan. Golpeak eman ordea egin ditut. Izan ere, jendea nahi duen bezala joaten da eta batzuetan bultzadak edota ukabilkak eman ditut.

A. T: Nik ez dut sustorik izan eta golpeak ere eman izan ditut.

Zezenaren aurrean egon al zarete?

A. T: Oso zaila da aurrean joatea, baina iaz gertu ibili nintzen, aurrean baino gehiago zezenaren alboan.

O. B: Nik urte asko daramatzat korrika baina egia esan, inoiz ez dut izan zezenaren aurrean egoteko aukerarik

Estafeta kalearen erdi aldetik abiatzen gara eta Telefonikatik barrena zezen plazan sartzen gara

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbaki: E-2644
RPS: 420101

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

TOLDOS OLANAK

AGUSTIN S.L.

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

izan. Oso zaila da eta punta-puntako jendea ateratzen da urtero korrikan. Horiek ez dakit nola lortzen duten baina, beti berdinak egoten dira aurrean. Zezenaren aldamenean joan izan naiz eta baita zezenari eskua gainean jarri ere erreferentzia hartzeko.

Bestela, korrikalarien artean giroa nolakoa izaten da?

A. T: Normalean jendea bere munduan egoten da, kontzentratuta. Hala ere, ikusten duzunaren arabera hitz egiten duzu. Nik adibidez, errealeko kamiseta zuten Azpeitiko gazte batzuekin hitz egin nuen behin eta oso gustura egon ginen. Baina orokorrean, jendea berera egoten da.

Gero, entzierroa amaitu ondoren jendea lasaiago egoten da eta orduan ikusten dira besarkadak eta irribarreak. Horiek izaten dira momentu onenak.

Korrikalari onak?

O. B: Julen Madinak izena hartu du baina asko dira bera baino hobeto korri egiten dutenak eta urte asko daramatzatenak. Bereizten den jendea badago, kamiseta kutun batekin korritzen 20 urte daramatzana. Askodaude onak.

A. T: Badira Kataluniako kamiseta batzuekin korrika egiten duten batzuk. Horiek oso onak dira, eleganteak.

Korrika egin ondoren momentuak analizatzen hasten zara eta zer egin duzun eta zein ikusi duzun konturatzen zara. Eta beraiek ere konturatzen dira.

Goierriin ba al dago beste inor ateratzen denik?

O. B: Batek edo besteak esan dit joan behar duela,

“Entzierroetan jende gehiegi ateratzen da eta asteburuetan bikoiztu egiten da”

Lo eginda edo lo egin gabe joaten zarete?

O. B: Lo eginda, gaupasaz ez naiz inoiz joan.

A. T: Ni ere lo eginda joaten naiz, baina urte batean, lanetik irten eta zuzenean joan nintzen entzierroa korritzera. Lanagatik ez bada, inoiz ez naiz lo egin gabe joan.

Entzierrora edanda iriten den jendeaz zer iritzi duzue?

A. T: Oso txarra. Horrela ateratzen direnek ez dakite zezenetan iritearen kultura nolakoa den. Ez dute dagoen arriskua ikusten. Beti ikusten da baten bat tonto-keriak egiten.

O. B: Nik elkarrizketa bat irakurri nuen eta han jaritzen zuen gizarteari San Ferminen arazoa eskuetatik joaten ari zaiola. Izan ere, jendea mozkortuta joaten da, motxilekin, kaskoare-



kin... ateratzen dira. Batzuk argazki kamera sartzen dute barrura eta korrika doazela argazkiak ateratzen dituzte. Ez da normala.

Jende gehiegi iriteten dela uste al duzue?

O. B: Bai, jende gehiegi iriteten da. Nik irakurri dudaren arabera, astean zehar

egiten diren entzierroetan 1000 lagun inguru ateratzen dira korrikan eta asteburuan jende kopuru bikoitza. Eta hori izugarri da.

A. T: Jende asko iriteten da eta horregatik asteburuan ni ez naiz ateratzen, arriskua nabarmen handitzen da.

baino momentua iritsitakoa ezetz esan didate. Segura, Zegama, Zerain eta inguru honetan badakit ez dagoela horretara bereziki joaten den beste inor. Baina, badira parranda egitera joan diren batzuk eta korrika egin dutenak. Nik dakidala gu bakarrik gaude.

Tafalla eta beste leku batzuetan ere egiten dira entzierroak. Inoiz beste batean irten al zarete?

O. B: Ni ez. Pentsatu izan dut Tafallan edo irteeta baino ez da erraza. San Ferminetakoa jada ikasita daukagu, baina beste leku batera

joanez gero, berriro ikasi behar duzu dena eta nahia-go ez. Tafallan esaterako, jende gutxiago iriteten da korrika baina zezenak oso azkar joaten dira eta ez da berdina. San Ferminen nahikoa daukat.

A. T: Ni ere San Ferminetan bakarrik atera naiz entzierroan korrika. Gero, jaietan eta horrelakoetan bigantxetan ibiltzea gustatzen zait. Horiek izaten dira parranda hoberenak.

Entzierroa eta geroako bigantxetan gelditzen al zarete?

A. T: Ez, hor edanda dau-

denak eta atzerritarrak ateratzen dira. Gainera, atzerritarrek ez dakit zergatik, baina, bigantxei heltzeko ohitura handia daukate eta izugarrizko kolpeak egoten dira.

Izan ere, Iruñako jendeak bigantxa heldu dutela ikusten dutenean, beraiena joan eta egurra ematen hasten dira. Izugarrizko kolpeak egoten dira bertan jendearen artean.

O. B: Niri hori ez zait gustatzen. Eta egia da, barruan izugarrizko kolpeak egoten dira jendearen artean bigantxa ziztazeagatik.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

iñAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea

lurre auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 43 01

Besain-Ordizia beteranoen futbol partidua

Garai zaharrak berritzen



Beasaingo taldea 1980. urte inguruan.

Gaur egun handia da Ordiziako eta Beasaingo futbol jokalariai beterano guztientzat. Izan ere, arratsaldean erakutsi beharko dute

Beasain Kirol Elkartek ehun urte betetzen ditu aurretik eta hori dela eta, makina bat ekitaldi antolatu dituzte. Ekitaldi horien guztien artean, Ordiziarren aurka partidu bat egitea pentsatu dute kirol elkartekoek. Baina, ez da edonolako partidua izango. Izan ere, beteranoak izango dira partidu horretan parte hartuko dutenak eta uztailearen

15ean jokatuko da futbol partida Beasaingo Igartza futbol zelaian.

Ilusio handia daukate jarririta beteranoek futbol partida honetarako eta hori erakutsi dute orain arte egin dituzten entrenamenduetan. Sei entrenamendu egin dituzte eta pixkanaka forma berreskuratzen joan dira.

Taldearen adinaren batzaz bestekoa altua da. Ho-

azken bi hilabeteetan egin dituzten entrenamenduen emaitza. Oraindik badago pikea bi taldeen artean, beraz, onenak irabaz dezala.

gei eta hamar urtetik gora koetatik hasi eta berrogei eta hamasei urte bitartekoak dira jokalariai Ordiziako Jesus Mari Jauregi entrenatzaileak adierazi digunaren arabera.

30 lagunetik gora talde bakoitzean

Ordiziarren taldean hogeita hamar bat lagun bildu dira entrenamenduetan eta de-

nak jokatuko dute partidu garrantzitsuan. Beasaingo taldean jende gutxiago bildu da entrenamendu saioetan, baina, hauek ere 30 lagunetik gora izango dira partiduaren egunean.

Silvestre Salsamendi, Roberto Turrientes eta Navarro aritu dira Beasaingo taldearen ardura eramaten. Beraiek antolatu dira guztiaz eta egun handirako ilu-



Ordiziako taldea 1980-81 denboraldian.

sio asko dituzte jarrita. Salsamendik adierazi digunaren arabera, beraien taldean 50 urte ingurukoak gutxi izango dira, gehienak 40 ingurukoak eta beste batzuk 30 urtetik gorakoak. Beasaingo taldean zaila izan da jendea biltzea: "Asko kanpoan bizi dira eta ezin izan dute entrenamenduetara etorri. Hala ere, ostiralean denak hemen izango dira".

Jauregik Ordiziako en martxa nolakoa izan den agertu du: "Ez da erraza izan jokalarik hauek guztiak biltzea, asko Ordiziatik kanpo bizi baitira". Baina, denek ilusio handia erakutsi dute eta bada Nafarroatik entrenatzera etorri denik ere. Jauregiren arabera, izen zerrenda bat egin zuten eta deika aritu ondoren, gehienak etorri dira.

Parte hartzeak garrantzia dauka, irabazteak ere bai
Gogotsu daude beteranoak eta oraindik barruan daramate Ordizia eta Beasainen

arteko pikea. "Pikea beti egon behar du, baina, pike sanoa", adierazi digu Salsamendik. Ostiraleko partidua horretan garrantzitsua parte hartzea dela aipatu du Jauregik, baina irabazteak ere bere garrantzia badaukala azpimarratu du. Iritzi berekoa da Beasaingo taldeko arduradunetako bat: "Parte hartzea da garrantzitsua, baina irabazteko gogo ere badaukagu eta Ordiziakoek ere ziur berdina pentsatzen dutela".

Entrenamendu suabeak

Entrenamenduetan denetarik egin dutela esan du Ordiziako entrenatzaileak: "Luzaketak, beroketak, baloiarekin toke batzuk eta partidua txiki batzuk egin di-

tugu. Noski, horrekin guztiarekin barre asko ere egin dugu". Hasierako entrenamenduak gogoragoak izan dira jokalarientzat, baina, pixkanaka forma hartzen joan direla dio Jauregik. Beasaingoek ere antzeko ariketak egin dituzte entrenamenduetan. Salsamendiren arabera "entrenamendu suabeak" egin dituzte.

Ordiziako taldekietatik aparte giroa izan dute aste hauetan. Izan ere, entrenamenduak egin ondoren, afari batekin amaitzen zuten beraien ariketa saioa.

Bestalde, ostiraleko partidua honetan jokalarik askok aurrez aurre jokatu dute beste taldeko jokalariekin, eta oraindik lehengo partidua gogoan dituztela be-

rratsi du Ordiziako entrenatzaileak. Izan ere, lehendik harremana badute batzuekin eta garai batean elkarren aurka jokatuak dira. Hala ere, giro oso polita sortuko da partiduan. Izan ere, pertsona batzuk elkar ikusi gabe daude 25 urtetan Salsamendik aipatu duenez: "Batzuk aspalditik ez dira ikusi eta giro ederra izango da zelaian. Gainera, jokalarik batzuk hemen jokatuak dira eta orain Ordizian jokatuko dute, eta alderantziz ere gertatuko da".

Horretaz gain, partiduko giroaz aparte, ondorengo afarian ziur gusturago egongo direla bi taldeetako jokalariek. Partiduan izerdia bota eta gero afari eder batekin beteko dute denek batera sabela, baita jolastu ezin izan dutenak ere.

Beraz, partidua borroka egongo dela eta konpetitiboa izango dela uste dute bi taldeetako kideek. Zorte on denek eta onenak irabaz dezala!

Hasierako entrenamenduak gogorrak izan dira jokalarientzat baina pixkanaka forma hartzen joan dira



Beasaingo beteranoen taldeko bainbat jokalariai ikus daitezke argazki bonetan. Hauek Igartza futbol zelaian egin dituzte entrenamendu saioak eta Turrientes, Navarro eta Salsamendi arduratu dira taldeaz.

Beasaingo futbol taldeko beteranoak

San Jose
Etxeberria
Turrientes I
Turrientes II
Eizmendi
Garcia R.
Pajares
Salsamendi
Cortes
Zubeldia
Barandi
Santamaria
Navarro
Galarreta
Cano
Txito
Guardabazos
Perez

Garcia F.
Guti
Mendigain
Gorrotxategi
Zaldua
Arraiza
Garmendia
Suarez
Leturia
Eskisabel
Pelaez
Olano
Larrarte
Ugartemendia
Oialuze
Mateos
Azkarate
Manex



Salsamendi eta Navarro Beasaingo entrenatzaileak eta jokalariai beteranoak dira.



Ordiziako veteranoek entrenamentu gebienak Beasainen egin badituzte ere, argazkia uztailaren 6an Ordiziako Altamirako zelaian egin zitzairen. Asko izan dira entrenamenduetara agertu diren veteranoak.



Jesus Mari Jauregi, Ordiziakoen entrenatzailea da.

Ordiziakoo futbol taldeko veteranoak

Apellaniz	Civico
Arin	Cambil
Jauregi	Bujanda
Nuñez	Zubeldia
Rodriguez	Juarez
Agirrezabala	Auzmendi
Armendariz	Ruben
Galparsoro	Calvo
Saldias	Bermudez
Erauskin	Esnaola
Otaegi	Pecharroman II
Jauregi II	Etxeberria
Arana	Sacristan
Aldalur	Nico
Apalategi	Bosque
Fernandez	Regil I
Muruamendiaraz	Regil II
Pecharroman I	Irastorza
Torres I	Oiarbide
Torres II	Aiusta
Jauregi I	Alonso
Eskisabel	Perez

Zumalakarregi gogoan 170 urteren ondoren

170 urte betetzen dira aurten Tomas Zumalakarregi XIX. mendeko pertsonaia ezaguna hil zela. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundia-ren Zumalakarregi Museoak pertsonaia azpimarragarri hau ekarri nahi du gogora.

Tomas Zumalakarregi 1788an jaio zen, Frantziako Iraultza piztu baino urte bete lehenago. Jaio zenetik bere heriotzaraino gatazka politiko eta guda askotako protagonista eta testigu izan zen. Museokoen arabera, bere militar izaera Lehenengo Guda Karlistan adierazi zuen Zumalakarregik. Izan ere, garai hartan, armada karlistaren buruzagi goren izendatua izan zen.

Mito bat sortu zen Zumalakarregiren heriotzaren inguruan. Ekainaren 13an Bilbora iritsi omen zen hiriarren setioa prestatzera. Baina, bi egun beranduago, operazioak behatzeko Begoñako jauregi bateko balkoian zegoela, bala errebotatu batek eskuineko izterrean jo zuen, Zumalakarregi museoak adierazi duenez.

Bala horren zauria larria ez zela esaten zuten medikuek museokoen arabera: "Medikuak bat zetozen zau-

ria ez zela larria eta bi edo hiru astetan erabat sendatua egongo zela esatean". Hala ere, Zumalakarregik Zegamako petrikilo batengana joan behar zuela pentsatu zuen eta halaxe egin zuen. Berrogei soldaduk Zegamaraino eraman zuten oheari baionetadun fusilekin eutsiz.

Zegaman familiaren etxean jarri omen zen eta petrikiloa bertara joan zen. Beste medikuen aholkuei muzin egin zioten eta izterrean zuen bala atera egin omen zion petrikiloak. Horren ondorioz, zauria gaiztotu egin zen eta ekainaren 24an karlisten buruzagia hil egin zen.

Baina Zumalakarregitarren familia horretan bazen pertsonaia ezagun gehiago. Tomasen anaia zaharrena, Migel Antonio Zumalakarregi, XIX. mendeko lehen er-

dialdeko euskal politikari liberal garantzitsuena izan omen zen. Gainera, Ormaiztegiko museokoen arabera, 1812ko Kadizko Konstituzio liberalaren erredakzioan parte hartu zuen. Horretaz gain, Donostiako alkatea izan zela aipatzen dute, baita Gorteetako diputatua ere.



'Iparraldea abentura karlistan'

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak ekintza ezberdinak antolatu ditu aurten, baita hainbat proiektu pentsatu ere. Horien artean azpimarratzekoa da Baionako Euskal Museoarekin batera, Iparraldea abentura karlistan aldi baterako erakusketaren burutapena.

Erakusketa honek "guda karlistak azaltzea du helburu, baina, Euskal Herri Kontinentalaren ikuspegitik", agertu dute Museokoek. Baina erakusketa hau ez da aurten ikusgai izango. Oraingoz edukiak prestatzen ariuko dira eta erakusketa 2006an ospatuko da Baionan eta Donostian.



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN



Goierri tarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierri tarra, Uribalde plaza, 7 behe, Beasain



JOS-BEL
ILEAPAINDEGIA

ANNE
MÖLLER
TRAITEMENT SUISSE
kosmetika

Alayte Orreaga
bisuteria

zutikako
solariuma

943 88 82 52 Urdaneta, 15 ORDIZIA

MULTIOPTICAS

Hegazkin-txartela

DOAN



Londres - Amsterdam - Berlin - Milen - Erroma - Niza

SEI HILEBETEKO
UKIPEN-LENTEEN
PACKAREKIN
MULTILENS GAMA



JOAN ETA ETORRI!

ZOKKETARIK GABE!

Packak ondorengoa dauka: Multilens gamako 2 kaxa 6 hilebetenako ukipen-lenteekin + Multilens soluzioa 360ml-ko 3 pote + lenteak eramateko kaxa.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

Gabiria

Udan jaietan murgilduta

Abuztuak 13, larunbata:

Goizean: Biribilketa egingo da baserriz baserri herriko txistulariekin. Arratsalde partean berriro egingo da.

23:00etan: Siliconai, Estupenda Jons eta Brigada Criminal taldeen kontzertua izango da ikusgai.

Abuztuak 14, igandea:

17:30ean: Suziri eta kanpai jotzea festei hasiera emanez.

18:00etan: Goruntz dantza taldeak dantza saioa eskainiko du. Ondoren, II. Patata tortilla lehiaketa.

22:00etan: Bertsolari jaialdia parroko antzokian. Par-taideak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Amets Arza-llus, Nahikari Gabilondo, Aritz Aranburu eta Aitzol Barandiaran.

Abuztuak 15, astelehena: Andra Mari eguna

11:00etan: Meza nagusia

12:00etan: XIV aldiz, Ormaiztegitik Gabiriarako igoe-ra txirrindez herritarrentzat.

18:00etan: Pilota partiduak: Lasa-Bengoetxea/Erroite-nea-Agote.

Ondoren, herriko gazteen artean herri kirolak.

19:00 etan: Bola eta toka lehiaketa (izen ematea 20.00 etan itxiko da).

Arratsalde eta gauean : Trikizio musika taldearekin dantzaldia eta mozerro dantza goizalderarte.

01:00 etan: Mozerro desfilea eta sari banaketa.

Goizaldera: Baratzuri zopa Osinalde elkarte.

Abuztuak 16, asteartea: San Roke eguna

11:00 etan: Meza nagusia. Ondoren, herriko Goruntz dantza taldeak eskainitako saioa.

16:00etan: Umeentzako puzgarri eta parke erraldoia.

17:30ean: Ume jolasak eta mozerro dantza.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketek jarraituko dute, aurreko eguneko araudiekin.

19:30etan: Sagardo eta txistorra dastaketa.

21:30etan: Kuadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean.

Gauean: Nestor Dj eta Nemus Dj-rekin Disko Festa.

Goizaldera: Baratzuri zopa denontzat elkarte.

Abuztuak 17, asteazkena: San Roke txiki eguna

11.00etan: Meza nagusia, herrian hildakoen alde.

18:00etan: Antzinako ohiturari jarraituz ardo beltz banaketa herriko zagiardotik.

Arratsaldean eta gauean: Joselu Anaiak musika taldearekin dantzaldia goizalderarte.

23:00 etan: Suziri festa izugarria.

Abuztuak 18, osteguna:

17:00etan: Herria txukuntzeko lana. Ondoren, lanean aritutakoek afari-merienda izango dute.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gi-
da-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

HORTZ KLINIKA



CAMPAGNOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Odontologia, hortz zuriketa, estetika,
periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.



Hortz zuriketa
ordu betean

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

OSINALDE
KARROZERIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain

Tfnoa 943 88 86 84



Zaldibia

Gazte festak

Uztailak 15, ostirala:

11:00etan: Bizikleta Martxa Alegira, AHTren aurkako ekitadi bezala.

16:00etan: Kafe tertulia herritar batzuen eskutik AHTren inguruan.

19:00etan: Sasi pilotari txapelketako finala.

Ondoren: Sukaldari txapelketa. Entsalada mixta eta patata tortila egin beharko dira.

23:00etan: Mendeku itsua eta Milshake musika taldearen kontzertua izango da.

Uztailak 16, ostirala: Herri bat Gaztetxe bat!

12:00etan: Jupiterrera ibilaldia.

13:00etan: Mibileta karrera eskolatan.

Ondoren: Triki poteoa eta bazkaria herriko plazan.

17:30etan: Apustu bat egingo da: Zaldiz, korrikaz eta bizikletaz osatutako bi talde elkarren aurka. Ondoren denak mozorrotzera.

20:00etan: Elektrotuna taldearekin burrunbada eta poteoa herrian zehar.

21:00etan: Sagardotegi afaria egingo da. Ondoren, morrozo onenari saria emango zaio.

Zerain

Andra Mari jaiak

Abuztuak 13, larunbata:

20:00etan: Ohiko gibel-jatea Liztormendi elkartearen.

Abuztuak 14, igandea: Andramari bezpera, umeen eguna:

11:00etan: Eskalada eta tirolina elizaren atzean.

16:30etan: Umeentzako jolas parkea herriko plazan.

Ondoren: Merienda eta buruhandiak.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.

Ondoren: Sagardo dastaketa eta burduntzian erretako txekor-pintxoak (txekorra egun guztian zehar, herriko plazan egongo da erretzen).

Segidan: Erromeria.

Abuztuak 15, astelehena: Andramari eguna:

09:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Andramari bola txapelketaren hasiera.

12:00etan: Txakolin dastaketa.

17:00etan: Helduen dantza txapelketa.

Afal ondoren: Dantzaldia.

24:00etan: Asto karrera

Ondoren: Dantzaldia.

*Mozorro gaua.

Abuztuak 16, asteartea:

San Roke eguna:

09:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

12:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera

12:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Zeraingo igoera txirriduz (maila ezberdinetan: haur, gazte, heldu).

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

20:30etan: Herri afaria (herri afarian parte hartzeko, arratsaldeko 18:00etarako eman behar da izena).

Ondoren: Erromeria goizaldera arte.

Abuztuak 17, asteazkena:

15:00etan: Herria txukuntzea.

Ikastetnik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak

Diagnosia eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Z

Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Etxetresna eta altzariz ornitua. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 679617159.

Donostian pisu bat saltzen da Antiguan. 104 metro karratu, egongela oso handia, 2 logela (baliteke 3 egitea). Xehetasunak, argazkiak eta planoak: usuarios.lycos.es/pisua. Partikularra. 943377292 (21:30etik 22:30era deitu).

konpartitzeko

Gasteizen pisu bat elkarbanatzeko bi lagun behar dira. 943801902 / 943800027.

erosi

Goierri inguruan baserri bat erosiko nuke. 677577717.

errentan eman

Lizarran etxebizitza alokatzen da abuztuan. 649043256.

Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da irailean, urrian eta ondorengo hilabeteetan. Hodartza ondoan dago eta guztiz ekipatua dago. 680442668.

Zarautzen etxea alokatzen da udaran, astebukaeratan, zurbietan... Hondartzatik gertu. 685718454.

Luz Ardidenen apartamentua alokatzen da udan. 6 pertsonentzat, igerileku eta garaiekin. 943881666 (denda orduetan deitu).

TABERNA

salgai

Aukera Beasainen. Taberna bat salgai erdigunean. Bezero finkoekin. 615787097.

LURSAILAK

erosi

Mutiloa edo Gabiria inguruan lur saila edo basoa erosiko nuke. 607720324.

GARAJEAK

erosi

Garaje itxia behar da karabana bat sartzeko. Goierri aldean kokatua. 646539460.

BESTELAKOAK

salgai

Pabiloia alokatzen da Ordizian. 150 metro karratukoa. 615787097.

Musika ekipoa salgai, Fonestar markakoa. Tabernarako egokia. Urte batean erabilia, egoera onean. 2.300 euro. 615710807 (Jose).

Gurdi denda salgai. Merkea eta egoera onean. 615716077.

Kotxearentzat erremolkeak salgai. Estreintatu gabe dago, handia, bi frenoduna. 943084507.

Karabana "Monaco costa azul 330" salgai. Matrimonio ohea eta bi litera txiki. Hozkailua eta sukaldea. 3000 euro. 658721109.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
943 88 649 943 88 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


ondoeta
GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK
E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabiloia OLABERRIA

VOLVO 
ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN
www.anzizar.com 943 88 17 00 Faxes: 943 88 48


GUKlan
BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA
Tel.: 943 161 277 Faxes: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

IBILGAILUAK

salgai

Lada Niva 4x4 autoa salgai. 1600 zentimetro kubikokoa eta gasolina. Egoera onean. 669688547.

Nissan Primera salgai. SE modeloa eta 150 zaldikoa. 7 urte dtu. SS-BB matrikuladuna. Oso egoera onean. 659049091.

Ford Escor 1.8i 16V 105CV gasolina salgai. Oso egoera onean. Gauza berri askorekin. 657700944 (Mikel).

Renault Safrane 2.2 TD salgai. BVVX matrikuladuna. Oso egoera onean, beti garajea egona. Eguerdian edo gauean deitu. 943652468.

Suzuki RMX 50 motorra salgai, 2002. urtekoa. Kilometro gutxi eta oso egoera onean. 680799653.

ANIMALIAK

oparitzeko

Arratoi txakurkumeak oparitzen dira. 620343576.

Txakurkume arra oparitzen da. 620343576.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com

LANA

eskaerak

Emakumea behar da Beasainen 8 eta 4 urteko bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia : goizez. 645720330, arratsaldeko zazpi-retatik aurrera deitu.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko goizez. 685769054.

Zerbitzari bat behar da uztaila eta abuztuan astebukaeratan lan egiteko. Esperientzia daukana hobe. Goierriko tamera bat. 943884196.

Neska edo emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko Beasainen. Goizez deitu, 652713580.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko. 20:00etatik aurrera deitu. 943028855.

Neska bat behar da etxeko lanak egiteko arratsaldez. Gidabaimeraikin. 630893295.

eskaintzak

Emakume bat eskaintzen da gidabaimenarekin etxeak edota baserriak garbitzeko. Baita adinako pertsonak zaintzeko ere. 678781958 / 943027227.

Mutila prest dago abuztuan zerbitzari bezala lan egiteko, herriko jaietan edo beste edozein lanetan aritzeko. 665704234.



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak

☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhazpe, Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuarte
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

INFORMATIKA-GELA

✓ Ikastaro berriak:

- Mekanografia
- Word, acces, excel...
- Internet
- Ingelera

UDA IKASTAROAK

Uztaila eta abuztua

- ✓ Errekuperazioak
- ✓ Udako lanak
- ✓ Datorren ikasturterako prestaketa
- ✓ Ingelera
- ✓ Tailerrak: ikasketa teknikak, irakurmena/idazmena, matematika/kalkulua

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Azken azterketak
- ✓ Maila guztiak: LH, DBH, batxilergoa, unibertsitate-maila, moduloak...
- ✓ Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



Ordiziako gazte koadrila 1944. urtean ezkontza agurrean

Xanti Mendizabalek utzi digun argazkia 1944ko irailean ateratakoa da. Juanito Garate (Txinparta) lagunari ezkontza agurra egin ziotenekoa hain zuzen ere.

1. Pedro Ormaetxea, 2. Migel Lasa (Motxa), 3. Fermin Alustiza, 4. Martin Murua (Siglo XX), 5. Joakin Iturrioz (Al-daba), 6. Isidro Apalategi, 7. Paco Arana (Boltxe), 8. Manolo Gorrotxategi, 9. Luis Tejedo, 10. Eugenio Eguren, 11. Atanasio Lakabe, 12. Isidro Markinez, 13. Eustakio Sanpedro, 14. Patxi Mujika, 15. Raimundo Garate, 16. Luis Azipuru, 17. Juanito Garate (Txinparta), 18. Agapito Alonso, 19. Pedro Maiz, 20. Frades (Tolosa), 21. Facundo Etxeberria (Lazkaibar), 22. Fernando Garate, 23. Inazio Mendia, 24. Bernardo Alonso eta 25. Ricardo Garcia.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

berriz

AMAYA ARZUAGA	FRENCH CONNECTION
MIRIAN OCARIZ	DIESEL
ISABEL MARANT	FOR ALL MANKIND
PAUL & JOE	ANTIK BATIK
HOSS	EARL JEANS
MISS SIXTY	SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

ZUZENKI

A HOLKULARITZA



Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Hirigoi, 7 LAZKAO

txekin

www.zuzenki.net

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



BARANDIARAN
zeramikak


ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Ahdiseño.

www.clickah.com



Ahdiseño.
www.clickah.com

Igartetxe kalea BEASAIN
2005/07/12 09:22 AM

ikus zaitzatela

Gure komunikazio lanak bestela ikusiko ez litzakeena *ikustea* lortzen du. Gure diseinu grafiko, errotulogintza eta komunikazio lanek gure bezeroen komunikazio behar aldakor eta ezberdinen menpe daudelako. Eta eskura ditugun komunikazio tresnak gure bezeroen enpresa, zerbitzu eta produktuk *ikustarazteko* sortzen ditugulako.

Martina Maiz, 3/2. bulegoa **Beasain** 20200 Gipuzkoa T 943 882 257 F 943 027 639 E ah@clickah.com